



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2017KO MAIATZAREN 25EAN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui
Irati Ozaita Azpiroz
Victoria Rodriguez Feloaga
Eleuterio Sanchez Garcia
Juan Luis Cid Conde

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hogeita bostean** arratsaldeko zazpi zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ezohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza hasi aurretik, eguneko gai-zerrendan aurrirakusten ez diren gai hauek sartzea proposatzen du. Honako gai hauek proposatzen ditu:

- Diruzain postuaren eraketa eta Autonomi Erkidegoari gaikuntza nazionalako funtzionarioen klasifikazioan sartzeko eskaera egitea.
- Izferen eta Ibarra Udalaren artean ziurtapen zerbitzuek jaulkitako zerbitzu elektronikoa arautzeko hitzarmena sinatzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ibarra Udalaren artean legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsultaren inguruan hitzarmena sinatzea.
- Ibarra Udalaren eta Gipuzkoako Trafiko zentralarekin hitzarmena sinatzea administrazioen informazioa elkarri trukatzeko.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BAKARRA: 2017ko maiatzaren 25eko Udalbatzaren eguneko gai-zerrendan sartzea honako gai hauen azterketa

- Diruzain postuaren eraketa eta Autonomi Erkidegoari gaikuntza nazionalako funtzionarioen klasifikazioan sartzeko eskaera egitea.
- Izferen eta Ibarra Udalaren artean ziurtapen zerbitzuek jaulkitako zerbitzu elektronikoa arautzeko hitzarmena sinatzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ibarra Udalaren artean legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsultaren inguruan hitzarmena sinatzea.
- Ibarra Udalaren eta Gipuzkoako Trafiko zentralarekin hitzarmena sinatzea administrazioen informazioa elkarri trukatzeko.

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

1.- 2017ko martxoaren 30ean egindako ohiko bilkuraren aktaren onarpena

2.- 2017ko maiatzaren 9ko ezohiko bilkuraren aktaren onarpena

3.- 101/2017tik 185/2017ra Alkate Dekretuak jakinaraztea

4.- Andone Zabala Ezeiza andreak 613 erregistro zenbakiarekin egindako alegazioari erantzuna

5.- Ibarra Bake epaile eta ordezkari bake epailearen izendapen proposamenaren onarpena

6.- Kreditu Aldaketa 2/2017 espedientean ez betezea agertzen duen txostenaren jakinarazpena

7.- EH Bildu Koalizioak aurkezten duen adierazpen instituzionala: Homo-Lesbo-Bi-Transfobiaren aurkako egunaren inguruan.

8.- Diruzain postuaren eraketa eta Autonomi Erkidegoari gaikuntza nazionalako funtzionarioen klasifikazioan sartzeko eskaera egitea.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

9.- Izferen eta Ibarra Udalaren artean ziurtapen zerbitzuek jaulkitako zerbitzu elektronikoa arautzeko hitzarmena sinatzea.

10.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ibarra Udalaren artean legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsultaren inguruan hitzarmena sinatzea

11.- Ibarra Udalaren eta Gipuzkoako Trafiko zentralarekin hitzarmena sinatzea administrazioen informazioa elkarri trukatzeko.

12.- Galde-eskaerak

LEHENA:

2017KO MARTXOAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko martxoaren 30eko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko martxoaren 30eko ohiko bilkurako akta

BIGARRENA:

2017KO MAIATZAREN 9AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko maiatzaren 9ko ezohiko bilkurako akta.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalbatzak, aho batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko maiatzaren 9ko ezohiko bilkurako akta

HIRUGARRENA:

101/2017TIK 185/2017RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2017ko martxoaren 30etik aurrera, onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 101/2017tik 185/2017ra.

Jakinarazten da 110/2017 dekretua ezeztatua gelditzen dela eta ez dela sortu.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

LAUGARRENA:

ANDONE ZABALA EZEIZA ANDREAK 613 ERREGISTRO ZENBAKIAREKIN EGINDAKO ALEGAZIOEI ERANTZUNA.

. 2017ko apirilaren 12an ANDONE ZABALA EZEIZA and.ak berraztertze errekurtsua aurkeztu zuen udalbatzak 2017ko martxoaren 17an harturiko erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, 3 hilabeteko epea ematen zitzaion Ibarra lokaletik elementuak erretiratzeko.

Errekurtsu horretan honakoa eskatzen du: indargabe uztea 2017ko martxoaren 17ko erabakia, eta, ondorioz, lokaletik inongo elementurik ez erretiratzeko agindua eta ebazpen berri bat ematekotan, epaia bere horretan betetzea.

Interesdunak arrazoi hauek eman ditu:

-2017ko otsailaren 14ko alegazioetara itzuliz, jurisdikzio-ahalean sartzea, bereziki epaitutakoa exekutatzeari dagokionez.

-Aurkaratu den akordioak nahasten ditu eta aplikatzen du obretako lizentzia ezeztatzea jarduera lizentziarekin, eta epaiaren exekuzio-bidean sartzen ditu jurisdikzio bidean eztabaidatu gabeko alderdiak.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

-Ezin da onartu udalaren justifikazioa, hau da, jarraipena egiteko bitartekorik ez izatea.

-Legezko ezintasuna lokaleko ekipamendua eraisteko, hori obretako lizentzia irmo batek baimendu baitzuen.

-Epaia edukia betetzera mugatu behar du, exekutatzen den epaian jaso gabeko alderdiak erabaki gabe.

Alegaturikoaren edukia aztertu ondoren, honako erantzuna eman behar zaio:

1.- 2017ko otsailaren 14ko alegazio-idatzira itzultzea:

Errekurtso- egileak egiten duen moduan udalak lehen alegatu eta justifikatu duenera bueltatzen da, bai epaiaren exekuzioan emandako alegazioak, bai udalbatzaren idazkariaren txostena eta ohiko bilkuraren erabakia, gaur aurkaratzen dena.

Dena den, epaia exekutzeko prozedura hasi ondoren, epaitegiak erabakiko ditu irekitze lizentzia ezeztatzearen ondorioak.

2.- Aurkaratu den akordioak nahasten ditu eta aplikatzen du obretako lizentzia ezeztatzea jardura lizentziarekin, eta epaiaren exekuzio-bidean sartzen ditu jurisdikzio bidean eztabaidatu gabeko alderdiak:

Espedientea zehatz-mehatz aztertzen bada, ikus daiteke Andone Zabalak behin eta berriz eskatu zuela irekitze lizentzia eta ezetsi egin zitzaiola udalak ezarritako neurri zuzentzaileak ez betetzeagatik (ikus udal arkitekto teknikoak eginiko txostena, 2011ko maiatzaren 27koa, maiatzaren 25ean eginiko ikuskatzearen ondoren, non adierazten diren aurkitutako gabeziak). Neurri zuzentzaile horiek jardura eta obretako proiektutik (2009ko martxoaren 6an aurkeztua) eratorritakoak ziren.

Gainera, 2012ko urriaren 8an udal arkitekto teknikoak beste txosten bat egin zuen non adierazten zuen urriaren 4an eginiko ikuskatzearen ondoren, ikusi zela lehen logela zegoen tokian orain estudio bat zegoela, eta biltegi bati ez zegozkion akaberak zituela. Horrek eragin zuen, berriz ere, irekitze lizentzia ez ematea.

Beste ikuskatze baten ondoren, alkate dekretu bidez, 2013ko urriaren 23an irekitze lizentzia eman zitzaion.

Beraz, irekitze lizentziaren baldintza izan zen lokala txoko erabilerarako izatea, interesdunak aurkeztu zuen jardura eta obra proiektuan jasotakoarekin bat. Proiektu horrek jasotzen zituen lokalaren egokitze lanak erabilera hori emateko. Irekitze lizentzia judizialki ezeztatu ondoren, uler daiteke erabilera debekatua izanda, txoko erabilerarako egindakoa ezeztatzea, aurkeztutako proiektuan eta udalak ezarritako neurri zuzentzaileetan jasotakoa.

Beraz, ez dago bi lizentzien areko bereizketarik, eta, modu horretara, kontuan izan behar da Gaztela-Leongo Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaia, 2006ko azaroaren 30ean (Rec 121/06). Honela dio hitzez-hitz:

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

*“Por lo tanto como establece la Sentencia de la sala Tercera del Tribunal Supremo de 2 de octubre de 1995 , la finalidad de ambas licencias, la de obras y la de instalación o apertura, es diferente **aunque convergente** en aras de alcanzar la más amplia garantía en el logro de la seguridad y salubridad necesarias para la seguridad pública, la paz social y el adecuado sosiego en las incidencias habituales de la vida familiar e individual.”*

Auzitegi Gorenak, halaber, hau dio 2006ko maiatzaren 17an (Rec.1530/03):

*“La jurisprudencia, desde antiguo, aunque reconoce la sustantividad de ambas licencias, declara su **interdependencia** en el supuesto del indicado precepto (STS de 6 de abril de 1961), y justifica la subordinación de la de obras a la de apertura invocando el interés del peticionario, para quien la anticipada autorización podría suponer evidentes perjuicios, de no obtenerse luego la de industria (SSTS de 16 de noviembre de 1971, 8 de febrero de 1977 y 27 de junio de 1979, entre otras muchas)»*

Aurrekoaren osagarri Valentziako Komunitateko Justizia Auzitegi nagusiak hau dio 2007ko urtarrilaren 31n emandako epaian (Rec. 515/2006):

*“El auto impugnado si que tiene en cuenta que existía una previa licencia de apertura; y que con los acuerdos impugnados, el Ayuntamiento estaba ejecutando una sentencia firme, al anular con ellos una resolución que la vulneraba. **Dependiendo entre si la licencia de obras y de apertura**; así, pues la medida de restablecimiento de la legalidad urbanística, lleva a la demolición de lo ilegalmente construido, y al cese de la actividad”.*

Horregatik, irekitze lizentzia ezeztatzeak eragina dakar, modu batera nahiz bestera, exekutaturakoan, izan ere, lotuta baitaude obretako lizentzia eta irekitze lizentzia. Areago, oraindik, epaiaren azalpen-zatian adierazten denean biltegi bati ez dagozkion elementuz osaturiko lokal bat dagoela; hori guztia, 2012ko urriaren 4an eginiko ikuskatzearen ondoren, udal arkitekto teknikoak eginiko txostenean oinarrituta.

Bestalde, udal honek epai horiek aipatu ditu eta horien arabera exekuzioak emandako epaitik haratago joan behar du, bere adierazpen-zatian oinarrituz. Esan behar da epai horietan obretako lizentzia ezeztatzeari buruz hitzegiten bada ere, beharrezko dela aplikatzea txoko erabilera galarazi ahal izateko; izan ere, lokala gaur egun bezala mantenduz gero, pentsa daiteke erabilera hori emango dela aurrerantzean ere, erabilera horretako elementuak desagerrarazten ez badira behintzat. Gainera lokala dagoen bezala ezin da esan biltegi bat denik. Emandako epaiak, modu batera edo bestera, lokalaren akaberak aipatzen ditu adierazpen-zatian, izan ere, horiek ez dira biltegi bati dagozkionak. Ondorioz, irekitze lizentzia ezeztatzen du.

Beraz, aipaturiko epaiak, beren adierazpen-zatian oinarrituz, obretako lizentziak ezeztatzearen ondorioz, eraispen beharra aipatzen badute ere, gauza bera egin beharko litzateke ezeztaturiko irekitze lizentzia baten aurrean. Horren arabera, txoko erabilera eman ezina aitortzen da, eta egungo egiturak erabilera hori ahalbidetzen du. Gainera epaiaren adierazpen-zatian azpimarratzen da lokalaren habilitazio okerra; horregatik epai horiek kontuan hartzekoak dira ezeztaturiko irekitze lizentzia bat exekutatzeako orduan.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3. Udalaren jokabidearen justifikazio onartezina : jarraipena egin ahal izateko bitartekorik ez izatea.

Lokalaren erabilerari buruzko aurrekariak ikusita, lehenik etxebizitza eta ondoren txoko erabilera baimendua, egiaztatu zen bide judizialean lokalean gaua igarotzen zutela, eta hori txoko erabileratik haratago doa. Horrek eramango luke udala kontrol bat egitera etxebizitza edota txoko erabilera ematen den jakiteko, eta hori ezinezkoa da egun udalak dituen baliabideekin.

Horregatik guztiagatik, irekitze lizentzia ezeztatzea soilik ez da nahikoa, ezin delako lokalaren erabileraren jarraipenik egin, areago lokal horrek txoko erabilerarako elementu guztiak baditu.

4. Lokalaren ekipamenduko elementurik ezin da legez eraitsi, obretako lizentzia irmo baten bidez egin zelako.

Egia bada ere, bere garaian obretako lizentzia eman zela, egia da, halaber baimendua zela ulertzen zela; horregatik eman zen orain ezeztatzen den irekitze lizentzia.

Epaiaren adierazpen-zatiari bagagozkio, bertan aipatzen da lokalaren akaberak ez direla biltegi bati dagozkionak, eta txoko erabilera baimendua ez dagoenez, kendu egin behar dira elementu horiek.

Beraz, sukaldea kentzeko agindua, txoko erabileraren elementu nagusi gisa, onartu egin behar da epaiaren interpretazioak horretara daramalako. Horrez gain, bi lizentzien arteko elkar lotura dago, jurisprudenzialki aitortzen denez lehen aipaturiko epaietan , eta horregatik, kendu egin behar dira debekaturiko erabilera baimentzen duten elementuak.

5. Epaiaren edukia betetzera mugatu behar du, exekutatzen den epaian jaso gabeko alderdiak erabaki gabe.

Emandako epaiak, askotan adierazi den moduan, ez dakar soilik epaitzak dioena betetzea, hau da " irekitze lizentzia ezeztatzea", baizik epaiaren adierazpen-zatiak dioena: lokalak biltegi bati ez dagozkion akaberak dituela, eta horietako batzuk zerrendatzen ditu , eta ondorioz, horiek kendu behar dira txoko erabilerara galarazteko.

Udal ebazpena epaiaren adierazpen-zatian babesten da, jurisprudenzia-doktrina aplikatzeagatik, eta epaiaren exekuzio espedientean zehar adierazi dena bai administrazio bidean bai bide judizialean, izan ere, onartzen baitu epaitza exekutatzean euskarri izatea epaiaren adierazpen-zatia.

Azaldutako guztiagatik, udalbatzak honako hau

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

2017/05/25

7



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENENGOA: EZESTE A ANDONE ZABALA EZEIZA and.ak Udalbatzak 2017ko martxoaren 17an harturiko erabakiaren aurka aurkezturiko berraztertze errekurtsua. Erabaki hartan 3 hilabeteko epea eman zitzaion Ibarra lbarburuondo etxebizitzako lokaletik elementuak kentzeko.

Erabaki honen aurka interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean Donostiako Administrazioarekiko auzien Epaitegian.

Kasu honetan 3/2017 epaiaren exekuzioan pieza bereizi bada 24/2014 administrazioarekiko auzi errekurtsuaren baitan, zeina Donostiako Administrazioarekiko auzien 2 Epaitegian jarraitzen den, Epaitegi hori izango da 148/2016 epaiaren exekuzioa nola bete erabakiko duena- bertan txoko erabilerako irekitze lizentzia ezeztatzen da Ibarra lbarburuondo etxebizitzaren behe solairuan.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman ANDONE ZABALA EZEIZA andreari.

BOSGARRENA:

IBARRAKO BAKE EPAILE ETA ORDEZKO BAKE EPAILEAREN IZENDAPEN PROPOSAMENAREN ONARPENA

Bake epaile eta bere ordezkoaren izendatzea orain lau urte egin zen eta ondorioz epea amaitzen denez, Botere Judizialeko Lege Organikoaren 99-103 artikulua kontutan izanik, ekainak 7ko 3/95 erreglamenduari jarraiki, berriz ere, Bake epailea eta ordezkoa izendatzeko prozesuari hasiera eman diogu.

Prozesuan parte hartzeko 2017ko apirilaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hautagaiak aurkezteko epea zabaldu zen. Epea amaiturik bi hautagai aurkeztu dira:

- 717 erregistro zenbakiarekin: Maria Jesus Huarte Ayestaran
- 823 erregistro zenbakiarekin: Andoni Campos Perera

Beren esperientzia eta prestakuntza maila kontutan izanik.

Udalbatzak, aho batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Proposatzea Maria Jesus Huarte Ayestaran andrea Ibarra lbarburuondo Bake epaile izendatzea.

BIGARRENA: Proposatzea Andoni Campos Perera jauna Ibarra lbarburuondo Bake epailearen ordezkoko gisa izendatzea.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea Euska Herriko Auzitegi Nagusiko Gobernuaren Idazkaritzari.

SEIGARRENA:

KREDITU ALDAKETA 2/2017 ESPEDIENTEAN EZ BETETZEA AGERTZEN DUEN TXOSTENA JAKINARAZTEA

Kontuhartzaileak honako txostena aurkezten du Udalbatzaren aurrean:

KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA OSOKO BILKURARI: AURREKONTU EGONKORTASUN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK EZ BETETZEA 2/2017 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEAN, KREDITU GEHIGARRIAK MODALITATEAN.

Kontuhartzailetza honek, 1/2013 Foru Arauak, otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5 art.an xedaturikoa betez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza departamentuaren Instrukzioaren 1.go eta 3. Arauari (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) jarraiki, txosten hau egiten du Udalbatza jakinaren gainean gelditzeko.

1.- AURREKARIAK

1.1 1/2013 Foru Arauak, otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5 art.an neurri zehatz batzuk ezartzen ditu Gipuzkoako toki entitateetako aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna bermatzeko

5. artikulua.– Zuzentze neurriak.

1.– Ez bada betetzen aurrekontu egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu araua, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko da, urtebetean helburu horiek edo gastu araua bete ahal izateko.

2.– Dena den, zor helburua betetzen ez bada, hori lortzeko epea plan ekonomiko-finantzarioan ezarritako bideari egokituko zaio, eta inoiz ere ez du gaindituko 2020 urteko denbora muga.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3.– *Bestetik, aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztan, entitateko Udaltzarrari komunikazio bat helaraziko beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzailetzak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.*

1.2 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2016ko azaroaren 8an, onarturiko Instrukzioaren 1. go. Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “aurrekontu egonkortasunari” buruz hauxe dio hitzez-hitz:

1. Araua. Aurrekontu egonkortasunaren helburua.

1. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2017ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da defizita zero izatea, finantzaketa ahalmena edota premiaren bitartez neurtuta, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioari jarraituz.

Magnitude hori zehazteko, honakoa hartuko da kontuan:

—Entitatea aurrekontu eta kontabilitate publikoa eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia honakoen arteko diferentziaren bitartez kalkulatu da: Aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako sarreraren eta aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako gastuen artekoa. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

—Entitatea enpresen Kontabilitate Plan Orokorra eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia Galera-Irabazien Kontuaren emaitzaren bitartez kalkulatu da. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dea egiaztatu beharko da 2017ko aurrekontuaren onarpen, aldaketa eta kitapenean.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztan, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udaltzari.

2. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2017ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da oreka finantzarioa izatea. Ondorio horretarako, oreka finantzariotzat ulertuko da galerarik ez izatea, entitate bakoitzari aplikagarria zaion kontabilitate planaren arabera.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da entitate guztietan, banan-banan hartuta, bai 2017ko gastuen eta sarreraren aurreikuspen egoeran, eta baita urteko kontuetan ere.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitateek apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez badute plan ekonomiko- finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

1.3 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2016ko azaroaren 8an, onarturiko Instrukzioaren 2. Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “zor publikoaren helburua” ri buruz hauxe dio hitzez-hitz:

2. Araua Zor publikoaren helburua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2017ko abenduaren 31ko zor bizia ez izatea 2015ean likidatutako sarrera arrunten %77 baino handiagoa.

Zor bizia kalkulatzeko kontuan hartuko dira 2017ko abenduaren 31n indarrean ziren eragiketa guztiak, abaletatik eratorritako arriskua barne; eta horri gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2017rako aurreikusitakoak, eta kenduko zaizkio 2014rako aurreikusitako amortizazioak. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeko Foru Fondoarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

2017ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egiaztatu beharko da erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela.

Zorraren helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2017-2020 epealdia aurreikusiko duena. Plan horretan jasoko den zor murrizketaren bilakaerak bermatu beharko du 2020an zorraren ratioa %70 baino handiagoa ez izatea.

1.4 2017ko maiatzaren 9an eginiko osoko bilkuran onartu zuen 2/2017 kreditu aldaketen espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean. Espediente horrek gastuen partida berriak aurreikusten ditu, eta baita dauden beste batzuk gutxitzea eta handitzea ere. Taula honetan daude jasota.

Aurrekontu-saila	Azalpena	Egungo kredituak	Aldaketak
1.0000.210.170.00.00	Baserri bideen mantentzea	7.020,00	3.275,00
1.0000.210.171.00.00	Parkeak mantentzea	1.000,00	5.000,00
1.0000.210.450.00.00	Azpiegitura gastuak	56.000,00	10.000,00
1.0000.211.324.00.00	Eskolako konponketak	100,00	4.000,00

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.0000.212.323.10.00	E. Arrese 13 eraikinaren mantentzea	100,00	2.000,00
1.0000.226.162.20.03	Gaikako bilketa informazioa.	8.000,00	3.000,00
1.0000.226.170.00.06	Ingurumen jarduerak	2.000,00	1.500,00
1.0000.226.341.00.06	Kirol jarduerak	1.000,00	1.500,00
1.0000.227.163.00.01	Garbiketa kontratua	177.000,00	1.277,00
1.0000.227.231.50.01	Genero berdintasuna sustatzeko kontratua	0,00	12.000,00
1.0000.227.231.00.04	Prebentzio zerb.	3.000,00	5.000,00
1.0000.227.920.00.04	Udal artxiboaren xahuketa	0,00	38.725,00
1.0000.227.932.00.08	Prozedura zehatzailea kudeatzea	1.000,00	1.500,00
1.0000.601.153.20.05	San Inazio espaloia zabaltzea	0,00	37.000,00
1.0000.601.170.00.01	Baserri bideak asfaltatzea	0,00	50.000,00
1.0000.622.164.00.02	Hilerriko horma	0,00	30.000,00
1.0000.623.162.10.01	DYMO tresneria erostea	0,00	300,00
1.0000.623.324.00.03	Egi eskolako igogailua	0,00	57.000,00
1.0000.623.920.00.01	Ontzi garbigailua erostea	4.500,00	1.000,00
1.0000.623.920.00.02	Udaletxeko ur bonbak	0,00	3.500,00
1.0000.625.338.00.99	Festetako altzariak	3.000,00	2.500,00
1.0000.626.333.00.00	Kultur etxeko ekipo inf.	2.000,00	2.500,00
1.0000.626.340.00.00	Kiroldegiko ekipo inf.	0,00	525,00
1.0000.643.450.00.01	Hirigintza proiektuak	0,00	20.000,00
	GUZTIRA.....		293.102,00

AURREKONTU KREDITUEN BAJAK

Aurrekontu-saila	Azalpena	Egungo kredituak	Gutxitzea
1.0000.226.231.50.05	Berdintasun -sentsibilizatze eta sustatze.	22.000,00	12.000,00
1.0000.481.324.00.00	Uzturpe Ikastola: hezkuntza proiektua.	160.000,00	40.000,00
1.0000.601.153.20.01	Izaskun biribilgunea	20.785,00	20.785,00
1.0000.602.336.00.01	Ibarrako ondarea eta historia	90,00	90,00
1.0000.609.450.00.00	Hirigintza proiektuak	20.000,00	20.000,00
	GUZTIRA.....		92.875,00

1.4.1 Espediente horrek betetzen du “zor publikoaren helburua”, izan ere, zor bizia, 2017ko abenduaren 31n %34,03 da, 2016an likidaturiko diru-sarreraren gainean, eta horrela zehazten du Diputatuen Kontseiluaren Instrukzioaren 2 Arauak, aurreko atalean jasotakoak, hau da, zor biziak ezin duela izan 2016an likidaturiko diru-sarreraren %77 baino handiagoa izan.

1.4.2. Aurrekontu egonkortasunaren helburua ez da betetzen aipaturiko aurrekontu aldaketak, **ehun eta laurogeita zortzi mila ehun eta laurogeita bat koma laurogeita hamalau euroko (-**

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

188.181,94 € defizita duelako, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, eta 2017rako helburua da defizit zero izatea.

Hori dela eta, aurrekontu orokorraren 2/2017 kreditu aldaketaren espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean, ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema europarraren arabera, ondoko taulan ikus daitekeen moduan:

GASTUAK		Aitorturiko betebeharrak	DIRU-SARRERAK		
I KAP	langileak	1.570.449,00	I KAP	Z. zuzenak	1117.200,00
II	Ohiko ondasun eta zerbitzuak	2.041.503,83	II	Z. zeharkakoak	44.000,00
III	Interesak	4.500,00	III	Tasa eta bestelako diru-sarrerak	676.245,00
IV	Ohiko transferentziak	662.682,69	IV	Ohiko transferentziak	2.916.855,00
V			V	Ondare diru-sarrerak	94.500,00
VI	Inbertsioak	781.546,42	VI	Inbertsio.-erreal. besterente	
VII	Kapital transferentziak	8.500,00	VII	Kapital transferentziak	32.200,00
	GUZTIRA	5.069.181,94		GUZTIRA	4.881.000,00

Kalkulu hori egin da 1-7 kap.etako diru-sarreraren aldeekin, eta 1-7 kap.etako gastuekin, termino kontsolidatuetan

Aurrekontu egonkortasuna ez betetzearen arrazoia da diruzaintzako geldikina erabiltzea. Beraz, 1/2013 Foru Arauaren 5 art.aren 3 paragrafoari jarraiki, kontuhartzaitzak udalaren egonkortasun finantzarioa aztertu eta ebaluatu behar du.

2.-ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2016ko azaroaren 8koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3. UDALAREN IRAUNKORTASUN FINANTZARIOAREN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA.

3.1 2017ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2016an likidatutako sarrera arrunten % **34,03** izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2016ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2017rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2017rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2016an likidatutako diru-sarrera arruntak	4.827.379,50 €
Zor bizia 2016.12.31n	1.796.498,59 €
Abalak	0,00 €
Formalizatu baina xedatu gabeko eragiketak	0,00 €
2017an aurreikusitako amortizazioak	153.750,00€

$$\blacksquare \frac{1.796.498,59 - 153.750,00}{4.827.379,50} = \%34,03$$

$$\bullet 4.827.379,50$$

Foru Aldundiak 2017rako ezarritako helburua magnitude hori %77 baino txikiagoa izatea denez, udalak tarte handia du bere egonkortasun finantzarioa betetzeko.

3.2 2016ko Aurrekontu Orokorren kitapenak eta 2017ko Aurrekontu Orokorrek diruzaintzako geldikin eta aurrezte garbi positiboak dituzte.

3.3 2017ko Aurrekontu orokorrek zero defizita du eta bere zor publikoek betetzen ditu otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak ezarritako helburuak.

3.4 2/2017 kreditu aldaketaren espedientearen gastuek, 2017ko aurrekontu orokorreko kreditu gehigarriak modalitatean, ez dakarte berez, udalak ematen dituen zerbitzuen kostua handiagotzea, ez beste zerbitzu berririk. Gainerako gastuek izaera puntuala eta koiunturazkoa dute. Horrenbestez, udal zerbitzuen egungo kostua mantentzen bada eta udalaren ohiko diru-sarrerak mantentzen badira, epe ertain eta laburrean, udalak ez du beharko neurri berezi edo apartekorik bere egonkortasun finantzarioa bermatzeko.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Horregatik, espedienteaz aztertu eta ebaluatu ondoren, kontu-hartzaile honek hau

ONDORIOZTATZEN DU

Aurrekontu Orokorren 2/2017 kreditu aldaketa espedienteak, kreditu gehigarriak modalitatean, betetzen du zor publikoaren edo finantzen iraunkortasun helburua, nahiz eta koiunturalki ez duen betetzen aurrekontu egonkortasun helburua.

Ibarra, 2017ko maiatzaren 10ean.
Kontuhartzailea

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

ZAZPIGARRENA:

EH BILDUREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: HOMO-LESBO-BI-TRANSFOBIAREN AURKAKO EGUNAREN INGURUKOA

EH Bildu Koalizioak honako adierazpen instituzionala aurkezten du Udalbatzaren aurrean honek onar dezan:

Maiatzak 17: HOMO-LESBO-BI-TRANSFOBIAREN AURKAKO EGUNA EH Bilduren adierazpena

Maiatzaren 17a Homo-Lesbo.Bi-TransFobien Aurkako Nazioarteko eguna izan da, 1990eko egun berean atera baitzuen homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik Osasunaren Mundu Erakundeak.

Egun hau lorpen baten isla izan daitekeen arren, oraindik ere asko dago eraldatzeko erakundeetan zein gizartean. Izan ere, munduko herri askok urratzen dituzte oraindik LGTBIQ (lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual, queer) kolektiboaren eskubideak. Azken aldian

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

entzun izan ditugu Errusia edo eta Txetxeniaren kasuak, baina badira baita Euskal eta Espainiak gobernuekin harreman dituzten herriak. Arabiar Emiraturik edo eta Maroko, besteak beste. Guztira 73 herrialdeetako gobernuek penalizatzen dute sexu bereko harremanak, kriminalizazio eta jazarpen sozialaz gain.

Gurera etorri, Euskal Herrian ere erasoak egunerokoan ditugu. Azken asteetan ezagunak izan dira Iruñean edo Irunen gertatutako eraso homofoboak, baina lehengotik ere Gasteiz eta Bilbon bizi izan dira halakoak. Homofobia instituzionala ere bizi izan dugu azken hilabeteetan Autobus Transfobikoarekin, izan ere "Hazte Oir" erakundea diru publikoz baliatzen da bere kanpainetarako, nahiz eta bere jarduna eskubideen urraketa gorrotoan oinarrituta egon, eta bizikidetzaren aurka doan.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herriak ezin du beste alde batera begiratu, ezin du eraso hauen konplize izan. Zentzu honetan, EH Bildutik, LGTBIQ eskubideak bermatzeko politikak bultzatuko ditugu ordezkariak dugun instituzioetan. Bide batez, gizarte eredu justu eta anitz baten alde lan egingo dugu, homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia amaitzeko lan egiten duten pertsona eta eragile guztiarekin batera.

Udalbatzak, aho batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea EH Bildu Koalizioak aurkezturiko Homo-Lesbo-Bi-Transfobiaren aurkako egunaren inguruko adierazpen instituzionala.

ZORTZIGARRENA:

DIRUZAIN POSTUAREN ERAKETA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOARI GAIKUNTZA NAZIONALEKO FUNTZIONARIOEN KLASIFIKAZIOAN SARTZEKO ESKAERA EGITEA.

Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera 20.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan diruzain funtzioen egikaritzan aplikatu diren irizpideak argitaratu zituen.

Irizpide hauen arabera, 2. Klasean klasifikaturiko Idazkaritza duten Udaletan honakoa aplikatzen da:

- Korporazioei dagokie beharrezko izapideak eta aldaketak egitea diruzain postua Erkide Autonomoak gaikuntza nazionaleko izaera duen funtzionario eskalan klasifika ditzan.

Aipaturiko zazpigarren Xedapen Iragankorraren lehen ataleko bigarren paragrafoaren beherealdiarekin 2017ko urtarrilaren 1ean, tokiko korporazioei dagokie beharrezko aldaketak egitea Autonomia Erkidegoak diruzain lanpostua sailka dezan gaikuntza nazionaleko tokiko administrazioko funtzionarioen eskalaren dagokion azpieskalan.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Sailkapen hori onartzeko prozedura ez da berehalakoa, eta beraz, diruzain lanpostua betetzen zuten **korporazioko funtzionarioek jarraitu ahalko dute beren zereginak betetzen**, korporazioaren ohiko funtzionamendua ahalbidetuz eta interes orokorrak gordez.

Behin gaikuntza nazionalako tokiko administrazioko funtzionarioei gordetako lanpostua zehaztu ondoren, ezingo da berehalakoan gaikuntza nazionalako tokiko administrazio batek bete lanpostu hori, izan ere, horrek eskatzen baitu lanpostu mota horiek betetzeko indarrean dagoen araudiak aurreikusitako tramiteak betetzea.

Horrelako egoeran, autonomia Erkidegoak, korporazioak hala eskatuta, diruzain lanpostua bete halako du **izendapen akzidental edo bitartekoaren** bidez, horrela jasotzen baitu 7/1985 legearen 92. Bi) art.ak eta uztailaren 29ko Errege Dekretuaren 33 eta 34 art.ek. Izendapen hori egin daiteke tokiko korporazioko funtzionario baten alde, lehendik diruzain lanpostua betetzen ari bada; gaikuntza nazionalako funtzionarioen lanpostuaren sailkapenak ez dakar nahitaez ordainsarien aldaketarik.

Lehiaketa norgehiagoka bidezko aukeraketa prozesu batean diruzain izendaturiko tokiko funtzionarioen kasuan, beren lanpostuan jarrai dezakete, nahiz eta izendapen akzidentala izan, gaikuntza nazionalako funtzionario batek benetan bete arte.

Diruzain lanposturik ez duten udalerrien kasuan, eta berau sortzeko aurrekonturik ez dagoenetan, autonomia erkideei dagokienez udalerrien elkargoak sortzea eta ezabatzea, diruzain lanpostuen elkargoak ere sor ditzakete, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak 2.b) eta 3.b) art.ek aurreikusitakoari jarraiki eta elkartze hauen araudi autonomikoa aplikatuz.

Guztia ikusirik, Udalbatzak, aho batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Sortzea diruzain lanpostua Ibarra Udalean.

BIGARRENGOA: Autonomia Erkidegoari eskatzea eraturiko diruzain lanpostua sailkatzeko gaikuntza nazionalako tokiko administrazioko funtzionarioen eskalari dagokion azpieskalan.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BEDERATZIGARRENA:

IZFEREN ETA IBARRAKO UDALAREN ARTEAN ZIURTAPEN ZERBITZUEK JAULKITAKO ZERBITZU ELEKTRONIKOA ARAUTZEKO HITZARMENA SINATZEA.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 araudiaren arabera, barne-merkatuko identifikazio elektronikoari eta transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa (1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena); identifikazio eta autentifikazio elektronikoaren segurtasunari eta elkarreragingarritasunari garrantzia eman behar zaio. Hauek ulertu behar dira informazio-sistemek eta horiek eusten dituzten prozedurek duten ahalmena kontutan izanik, hau da, datuak partekatzeko, elkar ezagutzeko eta informazio-eta ezagutza-trukea fidagarritasunez eta segurtasunez ahalbidetzeko modu bezala.

Horregatik araudiaren xede dira eta era berean, konfiantzazko zerbitzuak (halakotzat ulertuta sinadura elektronikoak, zigilu elektronikoak, denbora-zigiluak, entrega-zerbitzuak edo webguneen ziurtagiriak sortu, egiaztatu eta baliozkotzea), lineako ingurunean konfiantza eta segurtasun juridikoa sortzen laguntzen dute.

Hau guztia arautzeko helburuarekin, Ibarra Udalak eta Izferen zerbitzuek jaulkitako zerbitzu elektronikoa arautzeko hitzarmen hau sinatzea garrantzitsua dela uste dute.

Udalbatzak, aho batez, 8 aldeko botoekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Ibarra Udalaren eta IZFERen artean ziurtapen zerbitzuek jaulkitako zerbitzu elektronikoa arautzeko hitzarmen sinatzea.

BIGARRENGOA: Alkatea ahalmentzea hitzarmen hau sinatzeko

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Izferen.

LAUGARRENGOA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ibarra Udaleko web orrialdean argitaratzea.

ERANSKINA

HIRIAN, 2017ko HILAREN EGUNEAN

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BILDUTA

Alde batetik, **MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA** jauna/andrea, Ibarra Udaleko Alkatea, haren izenean eta beraren ordezkari gisa.

Aurrerantzean, ERAKUNDEA.

Bestetik, **IZASKUN URRESTARAZU AMONDARIAN andrea**, *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, IZENPE, SA* sozietateko zuzendari nagusia, sozietatearen izenean eta haren ordezkari gisa.

Aurrerantzean, Izenpe.

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko behar adinako ahalmen juridikoa aitortzen diote elkarri eta, horren indarrez, honako hau

AZALDU DUTE

1. *Lineako ingurunean konfiantzazko giroa sortzea funtsezkoa da ekonomia eta gizartea garatzeko. Mesfidantzak (zehazki, antzemandako segurtasun juridikorik ezaren ondoriozkoak) zalantzan jarrarazten ditu kontsumitzaileak, enpresak eta administrazio publikoak bide elektronikoaren bitartez transakzioak egiteko eta zerbitzu berriak bereganatzeko garaian.*

1. kontuan hartuzkoa, 910/2014 Araudia (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuko identifikazio elektronikoari eta transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

Zalantzarik gabe, lehen kontuan hartuzko horrek leialki jasotzen du Europako barne-merkatuaren egoera sozioekonomikoa. Egungo gizartea gizarte heldua da, herritarren, enpresen eta administrazio publikoen artean elkarreragin elektronikoak lortzeko gai izango den merkatu digital bakarra sortzeko prestatua; gizarte hau gauza da lineako zerbitzuetan eta negozio elektronikoetan eraginkortasun handienera iristeko; eta, azken batean, sozietate honek erabateko konfiantza du merkatu digital bakarlean.

2. Esparru arauemaile berri horrek erabateko garrantzia ematen dio, identifikazio eta autentifikazio elektronikoaren segurtasunari ez ezik, elkarreragingarritasunari ere; halakotzat ulertuta informazio-sistemek eta horiek eusten dituzten prozedurek duten ahalmena datuak partekatzeko, elkar ezagutzeko eta informazio-eta ezagutza-trukea fidagarritasunez eta segurtasunez ahalbidetzeko.

Araudiaren xede dira, era berean, konfiantzazko zerbitzuak (halakotzat ulertuta sinadura elektronikoak, zigilu elektronikoak, denbora-zigiluak, entrega-zerbitzuak edo webguneen ziurtagiriak sortu, egiaztatu eta baliozkotzea), lineako ingurunean konfiantza eta segurtasun juridikoa sortzen laguntzen duten heinean.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Konfiantzazko zerbitzu kualifikatuen eta konfiantzazko zerbitzuen emaile kualifikatuaren kontzeptuak sartuta, legegilearen asmoa da herritarrengan konfiantza areagotzea, zerbitzu edo produktu kualifikatuen segurtasun-maila handia ziurtatuko duten eskakizunak eta betebeharrak zein diren adieraztearren.

3. Esparru horretan Izenpek sortzen dituen identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoek harpidedunei eta, hala badagokio, gakoan edukitzaileei ere aukera ematen diete modu elektronikoa harremanetan jartzeko administrazio publikoekin, erakunde erabiltzaileekin eta haiek erabiltzea onartu duten instituzio publiko eta pribatuekin, baita azken horien artean ere.

Izenpek, ziurtagirietan oinarritutako identifikazio- eta sinadura-bitartekoez gainera, baditu ziurtagirietan oinarritu gabeko identifikazio-tresnak.

4. **HIRUGARREN ALDEAK** interesdunen identifikazio eta sinadura elektronikoko sistematzat onartzen ditu bai ziurtagirietan oinarritutako sistemak, bai beste edozein sistema.
5. Ondorioz, helburu izanik interesdunei aukera ematea Izenpek jaulkitako bitarteko elektronikoak erabiltzeko, bi aldeek interesa dute jarraian adierazten diren klausulen arabera lankidetzan aritzeko.

KLAUSULAK

1. LEHENA.- XEDEA

HIRUGARREN ALDEA Izenperekin lankidetzan arituko da identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikoak jaulkitzen, eta erregistro-erakundetzat jardungo du.

Erregistro-erakundetzat jarduteak berekin ekarriko du zeregin hauek egitea: erabiltzaileen nortasuna egiaztatzea, erregistro-erakundearen jasotako inguruabarren ziurtagiriak egiaztatzea, eta igortzeko, ezeztatzeko/baliogabetzeko eta berritzeko eskaerak baliozkotu eta onartzea.

2. BIGARRENA.- INDARRALDIA

Hitzarmen honek urtebeteko indarraldia izango du, berori sinatzen denetik hasita, eta automatikoki berrituko da idatziz eta fede emanez salatzen ez badu aldeetako edozeinek, betiere epemuga baino bi hilabete lehenago gutxienez.

3. HIRUGARRENA.- BETEBEHAR EKONOMIKOAK

Hitzarmen honek ez du sorraraziko betebeharrak ekonomikorik aldeetako inorentzat.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4. LAUGARRENA.- ALDEEN BETEBEHARRAK

Izenpek

- *Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan* esleitzen zaizkion betebeharrak beteko ditu.
- Konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren zerbitzuak egiteko, oinarri hartuta eraginkortasunaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioak.

HIRUGARREN ALDEAK

- Erregistro-erakundearen zereginak egingo ditu, *Izenperen Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan* ezarritakoari jarraituz.
- Konpromisoa hartzen du bere jardunean oinarri hartzeko eraginkortasunaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioak.
- Bete egingo du *Izenperen hornitzaileen segurtasun-politika*.

5. BOSGARRENA.- ALDEEN ERANTZUKIZUNA

Izenpek

- Hemen zehaztutakoa egoki betetzeaz erantzungo du.
- Hitzarmen honen ondoriozko bere betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragiten dituen kalteen erantzulea izango da.
- Zehazki, konfiantzazko zerbitzuen egile gisa, bere jardueraren eraginez edozein pertsonari eragiten dizkion kalte-galerei erantzungo die, baldin eta hitzarmen honek edo konfiantzazko zerbitzuen alorrean aplikatzekoa den legeriak ezartzen dizkion betebeharrak betetzen ez baditu edo arduragabekeriaz jarduten badu.

HIRUGARREN ALDEA erantzule izango da,

- Izenperen aurrean, hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragiten dituen kalteak direla eta.
- Zerbitzua egoki erabiltzeaz, hitzarmen honetan zehaztutakoaren arabera.
- *Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan* zehaztutakoa betetzeaz, aplikatzekoa den guztian.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6. SEIGARRENA.- DATUEN BABESA

I. Aplikatzeko datu pertsonalen babes-erregimena izango da *Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legean* (aurrerantzean, DBLO) eta hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoa.

Zehazki, Izenpek (aurrerantzean, *Erantzulea*) izango du hitzartutako zerbitzuen datuak tratatzen dituzten fitxategien ardura, DBLOaren arabera.

Fitxategi horiek Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistro Nagusian deklaratura daude.

Izenpek datu pertsonalei aplikatu dakizkiekeen segurtasun-neurriak bermatuko ditu, izaera teknikokoak zein antolamendukoak, betiere Izenperen segurtasun-politikako dokumentuan ezartzen denari jarraituz.

II. Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera Izenperen erregistro-erakunde gisa diharduenean, **HIRUGARREN ALDEA** izango da tratamenduaren arduraduna (aurreratzean, *Arduraduna*), DBLOaren 12. artikulua arabera.

Arduradunak

- Ezin izango ditu datu horiek erabili hitzarmen honetan adierazitako xedeaz bestelako xede baterako.
- Hitzematen du datuak *Erantzuleak* adierazten dizkion jarraibideen arabera tratatuko dituela (kasu honetan, segurtasun-arduradunaren aginduak dira).
- Ez dizkie inola ere datuak jakinaraziko, erakutsiko, lagako edo emango harremanaz kanpo dauden hirugarren pertsoneri, ezta kontserbatzeko badira ere.
- Hitzematen du indarrean dagoen eta aplikatzekoa zaion datuak babesteari buruzko legerian xedatutako guztia beteko duela.
- Gauzak horrela, *Arduradunak* edo haren mendekoetako edozeinek hitzarmenaren ondorioz ezagutzen duen datu oro erabat konfidentziala da, eta ezin izango die jakinarazi hirugarren batzuei, ezta norberak erabili ere. Berarentzat eta eraginpean daudenentzat sor daitezkeen kalteengatik erantzun beharko du.
- Ziurtatzen du bere kargura dauden langileek konfidentziasun-klausula bat sinatu dutela, eta, hori dela-eta, langile horiek hitzeman dutela bere karguaren edo zereginaren ondorioz ezagutzen duten informazioaren berri emango ez dutela, hitzarmen hau gauzatzen den bitartean zein ondoren.
- Hitzarmen honen ondoriozko datuen bat mantentzeko baimena jaso badu, zerbitzugintza amaitutakoan datu hori *Erantzuleari* itzuli edo, hala badagokio, suntsitu egin beharko du, baita datu hori jasoarazten duen euskarria edo dokumentua ere.
- Bestalde, DBLOan jasoarazten den erantzukizun-erregimenaren mende izango da, eta pertsonalki erantzun beharko du, baldin eta datuak hitzarmen honetan adierazitako xedeaz bestelako xede baterako erabiltzen badira, hirugarren batzuei datuen berri ematen badie, edo hitzarmen honetako klausularen bat bete gabe erabiltzen baditu.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Indarrean dagoen datuak babesteari buruzko araudiak ezartzen dituen bidezko segurtasun-neurriak –fisikoak, logikoak eta antolamendukoak– ezarri beharko ditu. Zerbitzugintzan eskura dituen datu pertsonalen araberako neurriak izango dira.

Erantzuleak, egoki baderitzo, datuak babesteari buruzko ikuskapen-txostena eskatu ahal izango du urtero. Ikuskapen horren mende izango dira zerbitzugintzako datu pertsonalen tratamendu automatizatuan esku hartzen duten pertsonak, fitxategi automatizatuak, tratamendu-zentroak, lokalak, ekipamenduak, sistemak eta programak.

Txosten horretan banakatuta jasoko dira, batetik, kontratatutako zerbitzuak eta, bestetik, DBLOaren eta segurtasunari dagokion haren garapen-araudiaren betetze-maila.

Ikuskapena arduradunak eta erantzuleak aurretik onartutako aditu independenteek egingo dute. Edonola ere, haien ingurunean izen handiko profesionalak izango dira.

Arduradunak hitz ematen du datuak babesteari alorreko aldira behingo ikuskapenak egin ahal izateko moduko informazio-sistemak eta -aplikazioak ezarriko dituela.

7. ZAZPIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUN KLAUSULA

Hitzarmen honetan zehaztutako xedearen ildotik, aldeek informazio eta/edo dokumentazio konfidentziala izan dezakete eskura. Konfidentzialtasun horri eusteko, bi aldeek konpromisoa hartzen duten jarraian adierazten diren hitzarmenak betetzeko.

- Eskura duten tratatutako informazio eta/edo dokumentazio guztiaren ganean ahalik eta erreserbarik handiena mantentzeko eta isilpean gordetzeko konpromisoa hartzen dute. Bi aldeek informazio hori konfidentzialtzat joko dute ondorio guztietarako.
- Ez diete inola ere hirugarren batzuei eskura duten informazioaren eta/edo dokumentazioaren berri emango, ezta informazioa gordetzeko ondorioetarako ere. Zehazki, hirugarren pertsona batzuei ez diete inoiz ere lanen barruan haiengana irits daitekeen edozein motatako informazioa emango, baldin eta ez badute hori egiteko beste aldearen aurretiazko adostasun idatzirik.
- Era berean, konfidentziala izango da hitzarmen honen ondoriozko informazioaren inguruan aldeek jaulkitako edozein txosten edo ahozko zein idatzizko jakinarazpen. Ezin izango zaie hirugarren batzuei erakutsi eta ezin izango da banatu edo jendaurrean aipatu beste aldearen aurretiazko eta idatzizko baimenik gabe.
- Ematen zaien edo eskura duten informazioaren segurtasuna (integritatea, eskuragarritasuna eta konfidentzialtasuna) bermatzeko beharrezko neurri tekniko guztiak mantenduko dituzte une oro, baita antolamendu-neurri guztiak ere. Kasuak kasu agintzen zaizkien lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak egiten diren bitartean, informazioa aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe sartzea saihestuko dute.
- Haien langileek egiten dituzten zereginak hitzarmen hau betetzeko behar-beharrezkoak diren zereginetara soilik eta berariaz mugatuko direla bermatu dute. Era berean, hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak eta eskura duten informazioa tratatzearekin lotzen diren betebeharrak jakinarazi beharko

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dizkiete haien langileei eta laguntzaileei. Zehazki, betebeharrak betetzen direla bermatzeko, behar beste ohar luzatuko dizkiete haien langileei eta beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetuko dituzte.

- Aldeek onartzen dute eta bere gain hartzen dute informazioa soilik eskuratu eta tratatuko dela hura eskuratzea beharrezkoa bada hitzartutako lanak, proiektuak, zerbitzuak eta/edo eskariak egiteko.

Informazio hori eskuratu eta tratatzean, ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak errespetatuko dituzte, **HIRUGARREN ALDEAK** bere aldetik ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak baztertu gabe. Azken horiek ere nahitaez bete beharko dira segurtasun-maila handitzen badute.

Kasuak kasu erabakitzen diren lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak egiten amaitu ostean, edozein formatutan jaso duten informazio guztia itzuli edo suntsitu beharko dute. Ezin dute inola ere gorde informazio horren guztiaren edo zati baten kopia, ezta agindutako lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak betetzearen ondorioz sor daitekeen bestelako informazioaren kopia ere.

- Bermatuko dute konfidentziasunaren eta sekretu profesionalaren betebeharrak iraun egingo duela hitzarmen hau amaitu ostean ere edozein kausagatik amaitzen delarik. Betebeharrak, beraz, iraupen mugagabea izango du.

8. ZORTZIGARRENA. – KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua amaituko da, legez ezarritako eta klausuletan xedatutako kausez gain, honako kausetako bat suertatzen denean:

- Bi aldeen arteko adostasuna.
- Aldeetako batek kontratuaren ondoriozko betebeharrak ez betetzea.
- Izenpek ezarritako zuzentarauak ez betetzea.

Lehen adierazitako kausengatik edo zuzenbidean onartutako beste edozeinengatik kontratua deuseztatu edo deseginez gero, **HIRUGARREN ALDEAK** bete egin beharko ditu kontratu hau deuseztatu aurretik Izenperen aurrean eta hirugarren batzuen aurrean bere gain hartutako betebeharrak.

9. BEDERATZIGARRENA.- ALDAKETA ETA JARRAIPENA

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean aldaketak egin daitezke, betiere izenpetzen duten alderdiek elkarrekin adostuta, eta erabakitako aldaketak hitzarmenari gehituko zaizkio eranskin moduan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

10. HAMARGARRENA.- JURISDIKZIOA

Hitzarmen hau interpretatzean edo gauzatzean, bi aldeen artean sortzen den edozein auzi ebazteko Gasteizko auzitegien eta epaitegien mende jarri beharko da.

Adostasun-froga gisa, bi aldeek sinatu dute hitzarmen hau.

<p>MIKEL AGIRREZABALA EZKURDI Jauna</p> <p>Ibarrako Udaleko Alkatea</p>	<p>IZASKUN URRESTARAZU AMONDARIAN and.</p> <p>Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, SA</p>
--	--

HAMARGARRENA:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA IBARRAKO UDALAREN ARTEAN LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDAN JASOTAKO DATUEN KONTSULTAREN INGURUAN HITZARMENA SINATZEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta egin ahal izateko hitzarmena sinatzea proposatu dio Ibarrako Udalari.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikusita egun hitzarmen hau sinatzea onarugarri zaiola Ibarra Udalari (30/2015 eta 40/2015 legeen eskaerei aurre egiteko pauso bat da)

Udalbatzak, aho batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ibarra Udalaren artean legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsultaren inguruan hitzarmena sinatzea.

BIGARRENGOA: Alkatea ahalduntzea hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENGOA: Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

LAUGARRENA: Erabaki honen berri eman Gipuzkoako Foru Aldundiari.

ERANSKINA

D-7 ERANSKINA.- Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

1. Deskripzioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

2.- Informazio lagapenaren helburua.

Ordezkaritza egiaztatzea hirugarren pertsonen izenean egiten diren jarduketan.

3.-Arau oinarria.

Bai administrazio prozedurari buruzko araudiak bai araudi tributarioak ordezkartzaren egiaztapena eskatzen dute hirugarren pertsonen izenean jarduteko.

4.- Datuen titularraren baimena.

Ez da beharrezkoa. Izan ere, eranskin honetan arautzen den informazioaren lagapenerako, interesdunaren baimena ez da bete beharreko eskakizuna lagapena aurreikusita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 6. artikuluan.

5.- Eman beharreko informazioaren edukia.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udal hartzaileak kontsultatu ahalko du Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuak.

6.- Informazio lagapenerako prozedura.

Informazio lagapena bi alderditik egingo da:

- a) Atzipena udalaren zerbitzu telematikoaren ataritik: Legezko ordezkariaren bat duen pertsonak ordezkariaren duen pertsonaren izenean baliabide elektronikoen bitartez jardutea nahi izango balu, udal aplikazioak ordezkariaren baliozkotza du ordezkariaren erroldan dagokion kontsulta eginez.
- b) Udal langileen atzipena: Udal hartzaileak izendatutako langileek legezko ordezkariaren erroldan atzitu ahalko dute, oinarriko kontsulta profilekin, zerbitzari seguru batean horretarako berariaz prestatutako zerbitzua erabilita. Sistemak baimendutako erabiltzaileen autentifikazioa eskatuko du betiere, eta komunikazio seguru eta j datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko ditu.

Horrek guztiak ez du eragotziko beste bideren bat ezartzeko aukera, kasu jakin batean eraginkorrago eta komenigarriago dela iritzita, betiere hein berean segurua bada, eta horretarako eskuragarri eta baliagarria bada.

7.- Lagapenaren aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsonen kopurua.

Kontsulten aldizkakotasuna iraunkorra eta etengabea izango da, udal hartzailearen beharren arabera.

Ezin da eragingo duen pertsonen kopurua zehaztu, kontsulten zenbatekoa baliabide elektronikoen erabiltzaileen eta horiek legezko ordezkariaren erregistratuta duten ala ez menpe baitago.

8.- Emandako datuak hirugarren bati lagatzeko aurreikuspena.

Ez

9.- Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa.

[Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave](mailto:Naia.Ruiz.de.Eguino.Garcia-Echave@ibarra.eus), 72.451.512-V, Idazkaria, [idazkaria@ibarra.eus](mailto:Naia.Ruiz.de.Eguino.Garcia-Echave@ibarra.eus), 943-67.11.38.

Erabiltzaileei alta ematea, sarbideak baimentzea eta sarbide horiek etengabe eguneratu eta egokitzea, udal hartzailearen organo arduradunak (edo bestela, IZFEK) egingo duen zeregina izango da, Ogasun eta Finantza Departamentuak gainbegiratzeko duen aukera baztertu gabe.

Nolanahi ere, sarrera kudeaketaren arduradunak erabiltzaileei pertsonalki informatuko die informazioa atzitzearen ondorioz berari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunen inguruan.

Udal hartzaileak erantzungo du bere erabiltzaileek legezko erroldaren datuei ematen dieten erabilera, eta, zehazki, haiek eskuratzen dituzten datuen proportzionaltasun, egokitasun eta bidezkeriaz.

10.- Solaskideak.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zuzenbideko gaietarako: Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / [Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave](mailto:Naia.Ruiz.de.Eguino.Garcia-Echave@ibarra.eus), 72.451.512-V, *Idazkaria*, idazkaria@ibarra.eus, 943-67.11.38.

Informatika gaietarako: IZFE, SA / Iosu Saez de Nanclares, IKT aholkularia, iosu@tolomendi.eus, 688-643464

Beste gai material batzuetarako (lagapenaren ohiko kudeaketa...): Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / [Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave](mailto:Naia.Ruiz.de.Eguino.Garcia-Echave@ibarra.eus), 72.451.512-V, *Idazkaria*, idazkaria@ibarra.eus, 943-67.11.38.

Bi aldeek beren gain hartzen dute eranskin honetan adierazitako datuak eguneratuak izateko ardura.

11 Bestelako eginkizunak.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaz hitzarmenaren hamahirugarren klausulan jasotzen den informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko ez eskatzeko eta herritarrari ekarpen individualik egiteko ez eskatzeko konpromisoaz gain, udal hartzaileak konpromiso hauek ere hartzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraziko dio informazio lagapenean gerta daiteken gorabeherak, teknikoak nahiz juridikoak.
- Erroldan inskribatu gabeko legezko ordezkari buruzko informazioa atzitu balu, horren berri emango dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, badagokio, ofiziozko inskripzioa egin ahal izateko.

HAMAIKAGARRENA:

IBARRAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO TRAFIKO ZENTRALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA; INFORMAZIOA ELKARRI TRUKATZEKO HELBURUAREKIN.

Ibarrako Udalak beharrezkoa deritzo Trafiko Zuzendaritzarekin hitzarmen bat sinatzea autoen erregistroa, arau-hauste eta gidariei buruzko informazioa jasotzeko. Modu honetan bi administrazioen artean informazioa trukatu da trafiko alorrean.

Udalbatzak, aho batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Ibarrako Udalak Gipuzkoako Trafiko Zentralarekin hitzarmena sinatzea, autoen erregistroa, arau-hauste eta gidarien inguruko informazioa trukatzeko

BIGARRENGOA: Alkatea ahalmentzea hitzarmen hau sinatzeko

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Trafiko Zentralera.

LAUGARRENGOA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ibarrako Udaleko web orrialdean argitaratzea.

2017/05/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamazazpi direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2017/05/25

29